

ZENBAIT ARAU

- Haurrak **bakarrik sartuko dira patiora**, gurasoak kanpoan geldituz.
- **Puntualtasuna** eskatzen dizuegu.

Atzerapenak justifikatu beharko dira. Ikasleak berandu heltzen direnean eskolara atezaintzatik edo zuzendaritzatik pasako dira. GURASO EDO LAGUNTZAILEEK EZIN DITUZTE IKASGELETARA ERAMAN, EZTA PATIORA ERE.

- Ikasleren batek eskolatik **lehenago atera behar** badu, tutoreari aldeztatik idatziz jakinarazi beharko diozue eta umearen bila etorri.
- Eskola jarduera behin bukatuz gero, ikasleen zaintza gurasoei edo legezko tutoreei dagokie.
- Eskolak antolatutako **irteerak gurasoen idatzizko baimenarekin** egin beharko dira.
- Ikasleek **zorriak edo bartzak** badituzte lehenbailehen horren berri eskolan emateko eta bartz guztiak kendu arte ikastetxera ez ekartzeko eskatzen dizuegu. Astean behin berrikustea komenigarria da.
- **Telefonoa** behar-beharrezkoa denean baino ez erabili. AbisuaK, eskariak,... ahal duzuen guztietan zuen seme-alaben bitartez eta idatziz bidali.
- Irakasleriak ezin du **botikarik** eman. Tratamendu bereziak egotekotan, medikuaren informea eskatuko da eta gurasoek baimena sinatu beharko dute.
- **Alergiaren bat** izatekotan ikaslearen tutoreari jakinarazi beharko zaio.
- **Ikasle bat eskolan gaixotzen denean**, gurasoei telefonoz deituko diegu bila etortzeko. Gaixotasun larria balitz 112ra deituko genuke.
- **Banatutako gurasoen kasuetan**, eskolako Zuzendaritzak sententzian agertzen diren banatze baldintzen kopia bat izan beharko du.
- **Ikasleen arropa** izenarekin markatzea gomendatzen da. Galtzen duten arropa gordetzen dugu eta denboraldi bat pasa ondoren onegintza elkarteei ematen diegu.
- **Irakasleren baten baja (tutore edo espezifikoa)** luzerako sumatzen denean, idatziz jakinaraziko diegu Haur Hezkuntzako eta 1.zikloko gurasoei. Gainontzeko gurasoei seme alaben bitartez esango zaie.
- **Ordenagailu txiki eramangarria** 5. eta 6. mailako ikasleek ikasgelan hezkuntzarako erabiliko dute. Ordenagailuarekin umeez irakasleek programaturiko eskolako jarduerak egingo dituzte, eta eskolan bertan erabiliko dute. Ikasleak eta familiak hitzemango dute ekipoa egoera onean mantenduko dutela. Halaber, familiak betebeharrak izango ditu:

- ✓ Konponketa-gastuak ordaindu, bermean sartzen ez diren matxurak gertatzen direnean.
- ✓ Ordenagailu txiki eramangarriaren ordezkoa ekarri baldin suntsitzen, lapurtzen edo galtzen bada ekipoa familiaren ardurapean dagoen bitartean.
- **Gelako arauak ahaztu gabe:**
 - ✓ Eskolako guztiok **errespetua** merezi dugu.
 - ✓ Gelan **ixilik** eta **adi** egongo gara.
 - ✓ Eskolako gauzak **zaindu** behar ditugu.
 - ✓ Eskolatik **lasai** joango gara, korrika egin gabe, **txanda errespetatuz**.
 - ✓